**ERREPORTAJEA** SIBERIAKO HAURREK HERRIKO FAMILIETAN PASAKO DUTE UDA

**GEHIGARRIA** KILIBARREN • **KIROLA** SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK UZTAILAREN 25EAN

# BARREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O  A S T E K A R I A · 2004ko uztailaren 16a/XII. urtea/497. zkia



## Siberiako hotzetik Elgoibarko epelera

"GUZTIOK EGITEN DUGU IRRIBARRE HIZKUNTZA BEREAN" (Anonimoa)

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ **943 74 03 96**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
☎ **943 74 09 02**
☎ **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 29 87**
☎ **679 19 77 47**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**

asteko notizia



## Mendekua

Batzuetan ulertzekoa da mendekua. Ikaragarria izan arren, guztiz irrazionala, hala ere, nik batzuetan ulertzen dut mendeku gosea. Esaterako, pasa den astean gertatutakoaren ondorioz zainak irakitan eta bihotza borbor hitz egin duen ijito familiaren kasuan. 15 urteko neskatila hil du bere mutil-lagunak. Hiru egunez etxean giltzapetua izan ostean, kolpez eta bortxaz erail du bizitzen hasiberria zen nerabea. Hiltzaileak adierazi duenez, estreinakoz jo zuenean ohartarazi zion neska-lagunari hobe zuela amaren etxera joan, oso posible zela beste behin ere jipoitzea. Neskak, baina, ezetz. Berak maite zuela eta nahiago zuela oinazean baina bere ondoan bizi, berarengandik aparte saminez iraun bizi baino. Halakoxea da maitasuna. Itsua. Neskak aurretik ere bikoteak eta sexu harremanak izan zituela jakiteak jeloskor jarri zuen mutila eta, arantza kentzeko modurik onena “maite” zuen emakumea katez itotzea zen, antza. Jo eta jo harik eta nerabea zorabiatuta erori zen arte. Hil egin zen arte. Orain, neskaren familiak mendekua aldarrikatu du. Jakin badakite sei urte kartzelan pasa ostean hiltzailea aske utziko dutela berriz. Eta orduan egingo dute egin beharrekoa. Bearekin, edo amarekin, arrebarekin... Min gehien nola lortu, halaxe burutuko dute mendekua. Eta ez dabiltza txantxetan. Ez da odolberotan esandako esaldia. Ijitoak euren esku hartzen dute justizia, ez baitute idatzitako legean sinesten, gizalegean baizik. Eta nik, aizue, ulertzen dut hauen samina. Eta hauen inpotentzia. Zerbait egin nahi izate hori. Baita mendeku egarria ere. Badakit jarrera horrek ez duela ezer konpontzen. Baina bikoteak jipoituta emakume bat hil dela entzuten dudan bakoitzean amorrua sortzen zait sabelean. Eta amorrua, maitasuna bezala, itsua da.

**Jasone Osoro**



## Oihane

Udan gaude eta gehienon buruan oporrak, lasaitasuna, eguzkia, parrandak, kirola eta abar daude. Giro honetan Parisen dagoen Fleury-Merogis espetxetik albistea etorri zaigu: Oihane Errazkin euskal preso politikoa urkaturik azaldu da bere gelan. Hiru urte zeramatzan Oihanek Frantziako espetxeetan. Fresneseko espetxean egon zen lehendabizi. Handik Fleuryra eraman zuten: batean zein bestean oso baldintza gogorretan bizi izan zen; zigor ziegetan eduki zuten presoen eskubideak defendatzeagatik. Gaixorik egon zen espetxean; ziatika, belarriko eta ahoko minak izan zituen, baina medikuek ez zioten ezer ere eman horiek sendatzeko. Lagunen bisitarik ez zioten onartu, Le Vert epaile frantziarrak horrela agindu zuelako.

Euskal Preso Politikoen kolektiboa 700 presok osatzen dute, Espainia eta Frantziako espetxeetan barreiaturik gehienak. Oihanek jasan dituen egoerak beste askok ere pairatzen dituzte. PSOEk diseinatu zuen sakabanaketa politikoa, PNVren aholkularitzarekin, Mugika Herzog “Justizi” Ministroa zela. Harrez gero, Estatu espainolak zein frantsesak bere egin dute. 30 lagunen heriotza ekarri du berarekin Estatuen kartzela politikak preso eta senideen artean, azkena Oihane izan delarik.

Hainbat “aditu” eta politikori entzun diegu urtebete daramagula biolentzia politikorik gabe, ETAren biolentziari soilik begiratzen diotelarik. Non gelditzen da azterketa horretan Oihane eta beste guztiekin gertatu dena?

Gertakari garrantzitsuen atarian gaudelakoan nago. Gertakari horien oinarrian eskubideak daude, Euskal Herria eta euskal herritarron eskubideak, hain zuzen ere. Ordua da behingoz presoen eskubideak ere bermatuak izan daitezen. Beraien herritik hurbil egoteko eskubidea, gaixotasun larriekin kaleratzeko eskubidea, ikasteko eskubidea... eta zergatik ez, prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea.

**Pello Mendizabal**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....................5
motz Motz ....................8
gehigarria ....................13
kiRolAk ....................20
aGenda ....................24

2004-VII-16

## Iritsi dira oporrak BARRENera

Urtero moduan, garai honetan, oporrak hartuko ditugu BARRENen. Abuztuaren 23an, SAN BARTOLOME JAIETAKO ZENBAKI BEREZIA eskuartean izango duzue. Iraileko lehenengo alea, berriz, hilaren 3koa, jaiei eskainiko diogu. San Bartolomeetan ateratako eretratuekin eta bitxikeriekin kaleratutako ale berezia izango da. Lantalde guztiaren partez ondo pasa oporrak.

# Urruzunoren begi ezkutua



## Ilargi betea

Sarritan egiten zituen ihesaldiak ilargira. Aspertuta zegoenean, arazoak zituenean, erabaki garrantzitsuak hartu behar zituenean, deskonektatu beharra sentitzen zuenean… Bazuen ilargiak berarengan eragin hipnotiko, magnetiko bat. Zergatik? Auskalo. Agian aita astronauta izana zelako, agian amaren eraginagatik, egazkin-azafata beltzaran luze eder bat. Gauza da, gure mutilak, espazio eta estratosfera dosi gehiegi zuela odolean, bihotzean, buruan... Gehiegi, mutil “normal” batentzat. Horrexegatik zen berezia bera, ezberdina… Ilargi betea mundura plazaratzen zen gauetan, motxila janari eta proiektu berri eta zoragarriz bete eta herriko eskailera guztiak biltzeari ekiten zion. Lokarriz josi eskailera guztiak bata besteari eta mendi tontor gailurrenera abiatzen zen. Lehenengo aldian, bost eskailera bakarrik lortu zituen, hurrengo aldian hamabi... Eta alditik aldira, gehiago lortzen zituen… Eskailera guztiak, ilaran josiak, ilargitik ahalik eta gertuen kokatzen zituen. Punta puntaraino igo eta ilargi bete liluragarriraino iristeko falta zitzaion distantzia neurtzeari ekiten zion eta berarekin hitzegiteari… horrela eguzkia ate joka hasi eta ilargiak “elkar ikusiko dugu berriro” esaten zion arte. Orduantxe esnatzen zen bere ametsetik.

**Eguzkiñe Aranberri**

## LIZARTZAN AHAL BADA, ELGOIBARREN ZERGATIK EZ UDAL DEMOKRATIKOA?

Pasa den astean ikusi ahal izan dugu nola PNVko GBBeko lehendakari eta Lizartzako alkate ez legitimoa den Joseba Egibarrek pauso zehatza, eta legala, eman duela bere udala demokratizatzeko.

Elgoibarren ere oso erraz egin daiteke: gure herriko Udalean herriaren nahia ezartzea besterik ez da. einbiou Herri plataformak 1000 bozkaren ordezkaritza, hau da, 2 zinegotzi eskuratuko lituzke, eta PNVk eta EAk soberan -lapurtuta- duten 2 galdu.

Denoi gustatuko litzaiguke udal demokratikoa izatea, eta ez gaur egun bezala, herriaren nahia bahiturik duena. PNV-EA eta Alkate honen esku dago Udalari legitimitate demokratikoa ematea. Eta ez badute nahi, herriari azaldu beharko diote zergatik Egibarrek egin duena, legala izanik gainera, Marivik ezin duen egin.

**Iñaki Odriozola eta Iñaki Bengoetxea**
**Einbiou-ko hautetsiak**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**


ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **GEHIGARRIEN ARDURADUNA** Maite Uriarte **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.420 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **San Lorentzorako bidean, belarrak moztu egin behar dira**: “San Lorentzorako bide bazterrean belarrak oso altu daude, eta moztu egin behar dira. Oinezkoentzat oso arriskutsua da, askotan errepidera atera behar izaten baitira belar eta sasien ondorioz, eta autoak oso gertu pasatzen dira. Ezbeharren bat gertatu baino lehen, belarra moztu eta bide bazterra txukuntzea komeni da”.

◆ Emakume batek azaldu digunez, **Ermuaranbide kalean autoek espaloi gainean aparkatzen dute**, eta ezin izaten da ibili: “Errepidearen alde bietako espaloi gainean aparkatzen dute autoek, eta ez dute pasatzeko lekurik lagatzen. Umearen karroarekin ateratzen naizenean, errepidera jaitsi behar izaten dut. Auto eta kamioi mordoa ibiltzen da errepide horretan, eta oso arriskutsua da. Gaizki aparkatutako autoek isuna merezi dute, ea horrela ondo aparkatzen ikasten duten. Badakit herrian aparkatzeko arazo handia dagoela, baina gidariek ez dituzte askotan oinezkoak errespetatzen”.

▼



◆ Gazte koadrila batek esan digunez, **Erretxindi auzoan ez dago iturririk**: “Askotan ibiltzen gara Erretxindi inguruan jolasten, eta ez dago iturririk. Korrika ibiltzen garenean, izerditu egiten gara, eta egarria izaten dugu. Lan handia al da iturri bat jartzea? Guk behintzat eskertuko genuke”.

▼



## TXALOAK

◆ Neska gazte batzuk **aire libreko zinema antolatzen dutenak txalotu nahi dituzte**: “Izugarri gustatzen zaigu Plaza Handian pelikulak ikustea. Giro bikaina egoten da. Antolatzaileek txalo bero bat merezi dute, eta hurrengo urtean ere, berdin jarraitu dezatela”.

◆ Guraso talde batek **Jabi Asenjo txalotu nahi du joan zen larunbat gauean, urtero bezala, bere “zezenarekin” sortu zuen giroarengatik**.



# Siberiatik Elgoibar

## Dobro pozhalovatv! (ongi

*San Juan bezperan iritsi ziren Siberiako hiru haur Elgoibarrera. Lida, Vladislav eta Zina, gure artean izango dira, beraz, irailaren 1era arte. Elorrioko Kañabera Elkartearen bitartez, herriko hiru familiak haur siberiarrak hartu dituzte etxean. Zina eta Vladislav iaz ere hemen izan ziren, Lida, ordea, lehenengo aldiz etorri da. Gaurkoan, Lida eta Zina izan ditugu gure artean, beraien familia berriekin. Vladislav ere gonbidatu genuen baina ezin izan da Barren-era etorri.*

**ZINA, BIGARREN URTEZ ELGOIBARREN**

Mari Juli Arregi eta Arnaldo Otegik bigarren urtez jarraian hartu dute Zina etxean: "Siberiako egoera oso gogorra da, haurrek bizimodu latza jasaten dute, eta horrek bultzatu gintuen bertako haur bat etxean hartzera. Gure alaba Garazi, aspertu egiten zen gainera, eta oso pozik hartu zuen ahizpa bat etxean".

Zinak ez dauka euskaraz hitz egiteko arazorik, etorri eta bi hilabetera arazorik gabe berba egiten zuen, eta dagoeneko, gaztelerazko zenbait esaldi ere ikasi ditu.

Aurten oso gustura etorri da Zina Elgoibarrera, baina iaz asko kostatu omen zitzaion bizimodu berrira ohitzea: "Hasieran negar asko egiten zuen, etxekoak faltan botatzen zituen". Gerora, ordea, dena aldatu zen, eta esperientzia oso aberasgarria izan zela kontatu digute: "Etxera itzuli behar zenean negar mordoa egin zuen, oso ondo pasatu zuen uda, eta aurten oso pozik itzuli da gure artera".

**LIDA, ESTREINAKO ALDIZ GURE ARTEAN**

Lidak sei urte ditu, eta aurten etorri da lehenengo aldiz Elgoibarrera. Jone Ariznabarreta eta Jesus Beristainek hartu dute etxean. Jonek esan digun bezala, "betidanik neukan kanpoko haur bat etxean hartzeko gogoa, baina lana zela-eta, ezin izaten nuen. Aurten lana utzi dut, eta banekien hauxe zela momentua". Jonek esan digunez, Lida oso erraz moldatu da hemengo ohituretara, eta momentuz ez dute berarekin inongo arazorik izan.



**ZINA, 8 URTE**

**"Igerian egitea asko gustatzen zait. Mintxetako igerilekuetan oso ondo pasatzen dut. Euskaraz hitz egiteko ondo moldatzen naiz, lagun asko egin ditut Elgoibarren. Tomatea eta fruta jatea gustuko dut, eta datorren urtean berriz gustura itzuliko nintzateke"**

Lidak oraindik ez du euskaraz hitz askorik egiten, baina hainbat kanta ikasi omen ditu, eta aiton-amonen izenak berehala ikasi zituen: "Badirudi Siberian amonarekin bizi dela, eta berarentzat, hemengo amama eta aitxitxa gu baino askoz garrantzitsuagoak dira. Izugarri maite ditu".

**BETI LAGUNTZEKO PREST**

Mari Juli eta Jonek esan digutenez, bi haurrak beti daude laguntzeko prest: "Etxeko lanak egin, zaborra atera, edota haserre aldiren bat izan bada, beti lagundu eta egoera konpontzeko prest daude. Maitasuna falta zaiela nabari da askotan, eta apur bat emanez gero, beraiek izugarri ematen dute".

**SIBERIA, BESTE MUNDU BAT**

Siberian bizi duten egoera zeharo desberdina da. Mari Julik eta Jonek esan digutenez, beharbada joango lirateke bertara, hango egoera ezagutzeko, baina jendeak oso esperientzia txarrak izan omen ditu: "Ezagutzen ditugu bertara joan direnen kasu batzuk, eta zeharo desilusionatuta itzuli ziren. Egoera oso gogorrean bizi dira haurrak Siberian. Bertan bizitzea oso latza omen da". Momentuz beraz, nahiago dute Siberiako umeak etxean hartzea.

**KAÑABERA ELKARTEA**

Elorrioko Kañabera Gobernuz Kanpoko Erakundearen bitartez egin dituzte tramite guztiak. Esan digutenez, familiek ez dute baldintza handiegirik bete behar Siberiako haurrak etxean hartzeko: "Bidaia eta beste hainbat gastu ordaindu behar izaten dira, baina normalean ez da arazorik egoten Siberiako haurrak etxean hartzeko".

Bidaia oso luzea eta gogorra jasan behar izaten dute haurrek Siberiatik Euskal Herriraino iristeko: "Ordu asko dira, eta jaten ere ez dakigu ematen dieten edo ez. Lida lehenengo egunean

# rera

## etorri!)



ezin genuen bete. Afal ostean kilo bat sandia jan zuen", kontatu digu Jonek.

Bi familiek esan digutenez, haurrari buruzko oso informazio gutxi izaten dute: "Askotan ez digute esaten gurasoekin bizi diren edo ez, kontakturako telefono soil batekin etortzen dira. Gainera umeek askotan gezurrak esaten dituzte, eta ezin izaten zaie dena sinetsi".

Jonek esan digunez, hasieran kuriositate handia zeukan Lidari buruzko informazioa lortzeko, baina dagoeneko ez zaio inporta: "Uda ondo pasatu dezala da garrantzitsuena, gainontzekoa berdin zaigu".

### ERREPIKATZEKO MODUKO ESPERIENTZIA

Arnaldo eta Mari Julik iazko esperientzia errepikatu egin dute aurten, eta datorren urtean ahal badute, berriz ere Zina Elgoibarrera ekartzen saiatuko direla kontatu digute. Jone eta Jesus lehenengo aldiz animatu dira aurten, baina momentuz, argi eta garbi adierazi digu Jonek, errepikatzeko moduko esperientzia dela.



**LIDA, 6 URTE**

**Lidak ez du oraindik euskaraz hitz askorik egiten. Izenak eta hainbat kanta ikasi ditu. Zinak itzuli digu berak esandakoa. "Parkeak eta kolunpioetan ibiltzea gustatzen zait. Jateko pizza gustatzen zait gehien. Euskarazko kanta batzuk ikasi ditut, eta etxekoekin ibiltzea gustatzen zait".**




# SIBERIA

## KONTRASTEZ BETERIKO LURRALDEA

Siberia hitzak, errusiarrez Sibir, Iparraldea esan nahi du. Errusiako Asia aldean dagoen lurralde erraldoia da Siberia. Mendebaldean Ural Mendiak, iparraldean Artiko Ozeanoa, ekialdean Ozeano Barea eta hegoaldean Txina, Mongolia eta Kazajstan herrialdeekin egiten du muga.

### BIZTANLERIA

Siberiako biztanle gehienak hego-mendebaldean bizi dira. Hiri garrantzitsu gehienak hegoaldean kokatzen dira, tren Transiberianoa pasatzen den inguruan.

### SIBERIAKO HERRI INDIGENAK

Siberiako herri indigenek Errusiako azaleraren %58a hartzen dute. Bi herri indigena nagusi daude Siberian: Yakuts-ak eta Komi-ak.

### KLIMA

Iparraldean dauden tundra artikoen ondorioz, lurralde oso hotza da. Negua oso luzea da, eta uda oso motza eta beroa. Siberiako iparraldean 33,9 graduko tenperaturak ohikoak dira udan, eta neguan, -69,4 gradutaraino jaitsi daiteke termometroa. Euri gutxi egiten du, Ozeano Bare kostaldean izan ezik, eta elur askorik ere ez du egiten.

### ERLIJIOA

Eliza ortodoxoa da nagusi, baina islamismoa, protestantea, katolizismoa, budismoa edota judaismoa bezalako erlijioak ere ezagutzen dira.

# 10 hilabete bizikleta gainean pasatu ostean, etxean dira Izazkun Arozena eta *Txotxe*

## Argentinatik Guatemalaraino, 11.000 km. egin dituzte bizikleta gainean

Aspalditik zeukaten buruan Izaskun Arozena eta *Txotxe*k bidaia luze bat bizikletaz egiteko asmoa, eta iazko irailean Argentina aldera abiatu ziren. 10 hilabete beranduago, Elgoibarrera itzuli dira, eta esperientzia itzela izan dela kontatu digute: “Sekulakoa izan da. Momentu gogorrak pasatu ditugu, baina asko gustatu zaigu, esperientzia zoragarria izan da”.

Argentinan hasi zuten bidaia, eta Patagonia aldera abiatu ziren: “Patagonian haizea izan da gure etsairik gogorrena”. Ondoren Chilera abiatu ziren, eta bertako autopista luzea apur bat mozteko autobusean egin zituzten kilometro batzuk. Ondoren Boliviara, handik Perura eta Hegoa Ameriketako bidaia Ekuadorren bukatu zuten.





*Hegoamerikan eta Ertamerikan paisaia ikusgarriak aurkitu dituzte.*

**Ertamerika**

Ekuadorren hegazkina hartu, eta Panamara joan ziren. Costa Rica, Nikaragua, Honduras, Salvador eta Guatemalan bukatu zuten bidaia. Hegazkina hartu, eta Madrilera iritsi zirenean, berriz ere bizikleta gainean jarriz Murgiaraino (Araba) joan ziren. Lagun batzuk bila joan zitzaizkien, eta azken etapatxoa furgonetan egin zutela kontatu digute.

**11.000 kilometro**

11.000 km. inguru egin dituzte bizikleta gainean, eta ez omen dute arazo handiegirik izan: “Osasunak asko lagundu digu, katarroren bat harrapatu dugu, baina besterik ez, eta mekanikoki ere gauzak ondo atera zaizkigu. Errubera zulatuen errekorra hautsi dugu, baina hori gerta zitekeela bagenekien”. Kanpiña, sukaldea, arroza, berakatza eta gatza beti gainean eraman dituzte. Egun batzuetan ez omen zuten jatekorik aurkitzen, baina jendeak izugarri lagundu diela kontatu digute: “Kontinente honek gizatasun lekzio garrantzitsua eman digu”.

# Telebistaren eztandaren ondorioz etxe bat erre zen San Bartolome kalean



Joan zen uztailaren 9an, arratsaldeko 18:00ak aldera, San Bartolome kaleko egongela batean telebistak eztanda egin zuen, eta etxebizitzak sua hartu zuen. Adineko bikote bat bizi zen etxean. Eztandaren unean sukaldean zeuden, eta egongelatik ateratzen zen keak jakinarazi zien etxea sutan zegoela.

Berehala iritsi ziren suhiltzaileak, eta arratsaldeko 19:00ak ingururako sua itzaltzea lortu zuten.

**Ikusmin handia**

Etxebizitzako leihoetatik ateratzen ziren ke eta suak herritar ugariren atentzioa deitu zuten, eta jende mordoa bildu zen San Bartolome kalean. Urduritasuna zen nagusi, batez ere, inguruko etxeetako bizilagunetan, baina etxebizitza hau San Bartolome kaleko etxerik berrienetarikoa denez, ez zen ezer larriagorik gertatu. San Bartolome kalean egurrezko estruktura duten etxe asko daude, eta horietako batek sua hartu izan balu, ezbeharra larriagoa izango litzateke.

**Bizilagunen laguntza**

Senarrak bizilagunei eskatu zien laguntza berehala. Emakumea gurpildun aulkian dago, eta arazo handiak ditu mugitzeko. Senarra sua itzaltzen saiatu zen baina udaltzain eta bizilagunek etxetik atera zituzten, beraien bizitza arriskuan ez jartzeko. Zorionez, ez zitzaien ezer larririk gertatu.

## Itziar Etxeberriak irabazi du Debegesak antolatutako III. Balkoi Apainketa Lehiaketa



Debegesak antolatutako Debabarrenako balkoiak apaintzeko III. Lehiaketan Itziar Etxeberria izan da irabazlea. Debegesak ekainaren hasieran antolatu zuen lehiaketa, eta ekainaren 14tik 18ra bitartean, herriz herri ibili dira epaimahaiko kideak balkoirik ederrenak hautatzeko. Herri bakoitzeko irabazleak 100 euroko erosketa txartela jasoko du, eta lorezaintzako produktuetan gastatu beharko du.

Hirugarren aldiz antolatu du Debegesak Balkoi Apainketa Lehiaketa, honen helburua eraikuntzen edertasuna handitu eta ingurugiroarekiko kontzientziazioa areagotzea da.

## Inazio Iriondo preso elgoibartarrak gose greba mugagabea hasi du



Inazio Iriondo eta Cacereseko kartzelan berarekin dauden gainontzeko euskal preso politikoek, mugagabeko gose greba bati ekin zioten joan zen astelehenean, uztailaren 12an. Azaldu dutenez, berez gogorra zen egoerak okerrera egin omen du. Adibidez, 12 lagun bakarrik ikustera behartu dituzte, eta bertako preso politiko bati familiakoak eta neska laguna besarkatzeko eskubidea 200 egunez kendu izana salatu dute.

## Debabarrenako 78 lagunek jaso dute lan arriskuen prebentziorako titulua

Debegesak antolatutako ikastaroen bidez, Debabarrena eskualdeko 78 lagunek jaso dute aurtengo ikasturtean Lan Arriskuen Prebentziorako titulua. Horietatik 55 lagunek Goi Mailako titulua jaso dute, eta gainontzeko 23 lagunek Erdi Mailakoa. Diploma banaketa Debegesak Eibarren daukan egoitzan egin zen.

## Erabilitako olioa jasoko du Udalak

Datorren uztailaren 23an eta abuztuaren 20an, etxean erabilitako olioa jasotzeko zerbitzua eskainiko du Udalak. Herritarrek goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean Plaza Handian utzi ahal izango dute erabilitako olioa, berau arraskatik botatzea oso kutsagarria baita.

## Asturiaseko Hezkuntza Sailburuak IMH bisitatu zuen

Uztailaren 13an, Asturiaseko Hezkuntza Sailburua eta Euskadiko Hezkuntza Sailburuordea bildu ziren IMHn. Jorge Arevalok, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordeak ongi etorria egin zion Asturiasko taldeari. Asturiasetik etorritako Jose Luis Iglesias, Hezkuntza Sailburua eta Paloma Sainz, Lanbide Heziketako Zuzendaria, Jorge Arevalo, Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Sailburuordea eta Josu Aboitiz, Etengabeko ikaskuntzako Zuzendariarekin bildu ziren. Ondoren, IMH bisitatu eta bertako jarduerak ezagutu zituzten.



## Miski Elkartearen zozketa abuztuaren 29an izango da



Miski Elkarteak errifak salduko ditu uztaila eta abuztuan zehar, Cuscoko (Peru) umeentzako dirua biltzeko helburuarekin. Miskik bultzatuako ekimen honek, herriko hainbat jatetxeren babesa jaso du (Aterpe, Basarte, Belaustegi, Gorbea, Herri Gain, Ibai Ondo, Iriondo, La amistad, La Bodega, Lanbroa, Sigma, Txarriduna eta Aubixa), eta bi lagunentzako 13 afari zozketatuko dira. Zozketa San Bartolome jaietako azken egunean egingo da, abuztuaren 29an, alegia.

Honetaz gain, Miskik umeak apadrinatzeko kanpaina bat jarri du martxan, eta bestalde, elkarterako bazkide berriak lortu nahi dira. Informazio gehiago lortzeko 943 74 03 31 (Gemma Agirregomezkorta) telefonora deitu daiteke.

2004-VII-16

**BARRENek oporrak hartuko ditu aste honetan. Ondo pasa eta San Bartolomeak arte!**

# KONTATUKO AL DIGUZU ZURE AMETSETAKO OPORRAK NOLAKOAK DIREN?



## ELICIO RODRIGUEZ

**57 urte, doitzailea**

Gutxirekin konformatzen naiz. Oporrak deskantsatzeko eta lasai egoteko aprobetxatzen ditut. Ez dut urrutira joan beharrik. Hondartzetako jendetzak gogaitu egiten nau.



## DAISSY SUAREZ

**24 urte, erizain laguntzailea**

Aurten beteko dut nire ametsetako bidaia. Aspalditik neukan Kolonbiara joan eta familia bisitatzeko gogoa, eta aurten joango naiz. Gainera, nire ezkon bidaia izango da.



## JUAN CARLOS MELGOSA

**41 urte, produkzio arduraduna**

Ahal banu uharte desertu batetara joango nintzateke emaztea eta seme-alabekin. Janari nahikoa eta eguraldi ona egiten duen toki batera.



## BLANCA VIÑA

**31 urte, etxekoandrea**

Ezer egin gabe egon eta deskantsatzea. Hondartza batetan etzan eta eguzkia hartzea. Mexikora itzuliko nintzateke gustura. Behin egon naiz bertan, eta izugarri gustatu zitzaidan.



## CORO ALDAZ

**51 urte, eskaparatista**

Toki askotan egon naiz dagoeneko. Orain beharbada, Tunez edo Maroko aldera joatea gustatuko litzaidake. Kultura desberdinak ezagutzea asko gustatzen zait.



## ENARA CASTRILLEJO

**10 urte, ikaslea**

Port Aventurara edo antzerako parke batetara joatea gustatuko litzaidake. Aurrez ere egonda nago Port Aventuran, baina oso ondo pasatu nuen, eta gustura errepikatuko nuke.

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# osasuna

# TIKAK
# ARRETARIK JARTZEN EZ BAZAIE LEHENAGO DESAGERTZEN DIRA

Haurren %20 inguruk izaten ditu tikak eta haurtzaroko mugimenduen gorabeherarik ohikoenak dira. Mutilek neskek baino hiru aldiz arrisku handiagoa izaten dute gaitz hau jasateko. Ohartu gabe egiten diren mugimendu hauek 6 eta 10 urte bitartean agertzen dira, eta gehienetan gaitz hau jasaten duten haurrak normalak, argiak eta sentiberak izaten dira, haur lotsatiek maizago jasaten duten arren. Adoleszentzian desagertu egiten dira eta gutxitan eusten diote nagusi egitean.

### ZER DIRA TIKAK?

Oharkabean egiten diren mugimenduak direla esan daiteke, iraupen laburrekoak eta ez erritmikoak, zakarrak eta errepikakorrak. Tikak jasaten dituztenek mugimendu hori saihesteko kontzentratu eta kontrolatzen saiatu behar izaten dute. Hala ere, batzuetan ez da astirik izaten dominatzeko.

### TIK MOTAK

**Mugimendu-tik sinpleak:** ohikoenak dira. Begiekin kliskak egitea edo begi-keinuak egitea, burua alde batera eta bestera astintzea eta sorbalda uzkurtzea dira mugimendurik ohikoenak, besoei eta hankei eragiten dieten beste tik batzuk ere badauden arren.
**Mugimendu-tik konplexuak:** norbere buruari kolpeak ematea, salto egitea, zapaltzea... Ez dira oso ohikoak.
**Tik foniko edo ahots-tik sinpleak:** eztarria garbitzea, marmar egitea, sudurretik zurrupatzea, arnasotsa...
**Tik foniko edo ahots-tik konplexuak:** haurrak ekolalia (esaten dizkioten hitzak errepikatzea), alilalia (bere hitzak errepikatzea) edo koprolalia (hitz lizunak esatea) eta antzeko tikak dituenean, Tourette sindromea duela pentsa daiteke.

### TRATAMENDUA

Tik kasurik gehienak berez desagertzen dira, baina kasu batzuetan beharrezkoa izan daiteke tratamendu berezia. Medikazioak sintoma eten dezake, baina ez du tiken zergatia deuseztatzen. Metodo psikologikoak eta autokontrolekoak zehazki oso baliagarriak dira tikak eta Torurette sindromearentzako. Tratamendu mota horien artean terapiarik garrantzitsuenetako bat "Ohitura aldatzeko prozedura" gisa ezagutzen dena da. Prozedura honen bidez bi eta lau hilabete artean kasuen %90 inguru desagertu egiten da. Teknika konplexua da eta laguntza eta borondate handia eskatzen du. Zorionez haur gutxik behar izaten dute tratamendua, gehienek berez uzten baitiote tika izateari.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**

## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**


SARGOATEKO ERROMERIA
uztailak 25, domeka
EGITASMOA
11:00
Meza
12:00
Salda eta txorizoa
12:30
Bertsolariak eta
Trikitilariak
14:00
Erromeriaren amaiera
ANTOLATZAILEAK: SALLOBENTEKO Jai Batzordea, MORKAIKO, ELGOIBARKO IZARRA, DEBEMEN eta ELGOIBARKO UDALA

# KiliBARREN

MENDAROKO GEHIGARRIA · 2004ko uztailaren 16a/XII. urtea/108. zkia

## Rosa Mari Aranbarrik irabazi du Debegesak antolatutako III. Balkoi Apainketa Lehiaketa

### 100 euroko erosketa txartela jasoko du lorezaintzako produktuetan gastatzeko



Debegesak antolatutako Debabarrenako balkoiak apaintzeko III. Lehiaketan Rosa Mari Aranbarri izan da Mendaroko irabazlea. Debegesak ekainaren hasieran antolatu zuen lehiaketa, eta ekainaren 14tik 18ra bitartean, herriz herri ibili dira epaimahaiko kideak balkoirik ederrenak hautatzeko. Herri bakoitzeko irabazleak 100 euroko erosketa txartela jasoko du, eta lorezaintzako produktuetan gastatu beharko du.

Hirugarren aldiz antolatu du Debegesak Balkoi Apainketa Lehiaketa, eta helburua eraikuntzen edertasuna handitu eta ingurugiroarekiko kontzientziazioa areagotzea da. Balkoi irabazlea Azpilgoeta kalean dago, eta Rosa Mari jabeak azaldu digunez Surfiniak dira bertan ikus daitezkeen lorak. Saria berari eman izanaz harrituta dago, “nireak baino balkoi ederragoak mordoa daude, ez dakit nola eta zergatik aukeratu duten nirea”. Egunero ureztatzen ditu lorak iluntzean, “piska bat freskatzen duenean” eta 15 egunean behin bitaminak ematen dizkiela gaineratu digu. “Lehen Alegriak landatzen nituen, baina Surfiniak ere ikusgarriak dira eta ez dute zaintza handiegirik behar”. Maiatzetik abuztura bitartean izaten dute lorealdia Surfiniek. Beste piskatean apain jarraituko dute mendaroko balkoi eta

## Vicente Olazabal izan zen mendaroarrik onena Santana Plater Tiraketa Txapelketan

### Azpilgoeta 19-4.eko balkoia izan da saritua




Jose Angel Amestik irabazi zuen uztailaren 10ean Larraskandako zelaietan jokatu zen Santana Plater Tiraketa Txapelketa.

Irabazleak 23 plater botatzea lortu zuen. Bigarren postuan Teodoro Perea sailkatu zen eta hirugarren postuan, berriz, lehen mendaroarra, Vicente Olazabal, alegia. Vicentek 22 plater bota zituen. Juan Maria Landa herritarrak ere 22 bota zituen, baina desberdinketan nagusitu zen Vicente. Axier Landa sailkatu zen hauen atzetik.

## Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Maria Garate eta Nerea Zubierrementeria izan dira 2004ko Santana jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketako irabazleak. Santanetako ekintzak zen lehiaketako gaia eta honen inguruan osatu behar izan dute azala. Jasotako sariak 50 euro, eskolako materiala, eta partaide guztientzat oroigarria izan dira.

## Danborradako entseguak

Aurtengo danborrada uztailaren 25ean izango da. Bertan parte hartu nahi dutenek entseguetara azaldu beharko dute. Hauek, astelehenetan eta asteazkenetan, 21:15ean egingo dira San Jose ikastolan.

KiliBARREN
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Santanetako BIZI

*Elgoibarrek Mausitxa badu, Mendarok Bizi-Poza dauka. 1992ko Santana jaietan atera zen lehen aldiz Bizi-Poza txaranga. Urtebete lehenago gazte koadrila bat benetako instrumentuekin beharrean turutekin atera zen. Erdi lotsatuta atera ziren eta ziztu bizian egin zuten kalejira. Gustura aritu ziren, ordea, eta esperientzia hura abiapuntutzat hartuz, gauzak serioago hartu eta hurrengo urterako be-*



## ASIER LANDA

**BIZI-POZA TXARANGAKO KIDEA OHIA**

## "Hutsetik abiatuta sortu g

**Koadrilako guztiok al zineten musika zaleak?** Ezta pentsatu ere. Musika zaleak bai, baina neska batek eta nik bakarrik genituen solfeo ezagutzak. Lehen urtean tutuekin atera ostean, hurrengo urtean instrumentuekin atera behar genuela erabaki eta prestatzen hasi ginen. Gainontzekoei irakasten saiatu ginen. Klaseak ematen genizkiela gehiegi esatea da, jendea musikaren arrastoan sartu edo aholkuak eman genizkien. Ordu asko sartu genituen, asko hutsetik abiatu baitziren.

**92ko Santanetan egin al zenuten debuta?** Aurrez, 92ko apirilean koadrilako bikote bat ezkondu zen eta bertan egin genuen lehen emanaldia. Utz dezagun borondate handiko emanaldia izan zela. Lehen emanaldi ofiziala, ordea, 92ko Santana jaietan izan zen.

**Nolakoa izan zen mendaroarren erantzuna?** Oso urduri atera ginen, erridikuloa egingo genuen beldur. Mendaroarrek oso ondo erantzun zuten. Mendaron nondik atera zen horrelako talde bat galdetzen ziguten.

**Zenbat lagun atera zineten?** Dozena bat lagun izango ginen. Errepertorioan 12 kantu sartu genituen; errazak eta motzak, baina aurrez lan asko eginda atera ginen. Desafinatuko genuen, baina ilusioak dena tapatu zuen. Lehen hiru edo lau urteetan topera ibili ginen; egunero irtenaz eta jende asko eramaten genuen atzetik. Akorduan daukat Mausitxak ikusi gintuela hasierako ekitaldi haietako batean eta harrituta zegoen hutsetik hasita txaranga atera genuela-eta.

**Nola lortu zenituzten instrumentuak?** Istorio kuriosoa da. Udalak 500.000 pezetako dirulaguntza eman zigun instrumentuak erosteko eta Gasteizera joan ginen instrumentuak erostera. Itxurazko denda batean sartu eta jabeari 8 edo 9 instrumentu erosteko zenbat diru geneukan esan genionean barre algara batean hasi zen. Guk ez genuen horrelakorik espero eta txinan egindako instrumentuekin nahikoa genuela esan genion, merkeagoak baitira. Instrumentu horiek apaingarri gisa erabiltzen direla etxeetako paretetan erantzun zigun. Ezer erosi gabe atera ginen, baina izu-



Egaña

# I - POZA

***netako instrumentuekin ateratzea erabaki zuten. Asier Landa sorreratik egon da Bizi Poza Txarangan. Bera izan da hasieretako lagun haietatik txaranga lagatzen azkena, duela pare bat urte hartu baitzuen lagatzeko erabakia. Berak azaldu digu Mendaroko gazte koadrila baten esfortzuaren eta borondatearen ondorioz sortu zen txarangaren istorioa***

## enuen Bizi-Poza txaranga"

garrizko egun pasa egin genuen Gasteizen. Gero nola edo ahala osatu genuen txaranga; instrumentu merkeenak erosiz, bigarren eskukoak edo utzitakoekin moldatu behar izan genuen.

**Ze egunetan ateratzen zarete?** Jaiek hiru edo lau egun irauten dute eta hasieran denetan ateratzen ginen. Lehen urtean goiz eta arratsaldez irten ginela akordatzen naiz, baita Santana Egunean ere. Ermitatik behera jaistea eta trikitilariak eta bertsolariak entzutea da egun horretako ohitura, baina urte hartan jendea gure atzetik ibili zen. Batere maliziarik gabe egin genuen, ilusio handia baigeneukan.

**Jo al duzue inoiz Mendarotik kanpo?** Behin eta ez zen batere plaza txarra izan. Elgoibarko Kilometroetan izan zen 96an. Beldurtuta joan ginen, handiegia ote zen hura guretzat baina oso ondo pasa genuen. Eguraldi oso txarra egin zuen arren, esperientzia oso polita izan zen.

**Bizi-Pozaren etorkizuna ziurtatuta al dago?** Esperantza hori daukat, behintzat. Orain 16 bat kide inguru daude txarangan, gehienak oso gazteak. Oso polita da txarangarena, eta atzera begiratuta konturatzen naiz egin genuenaz, baina barruan zaudela konturatzen zara atzetik daukan lan guztiaz. Gogoa eta borondatea behar dira txaranga mantentzeko. Orain Musika Eskola ere badaukagu Mendaron eta bertatik txaranga hornituko duten musikariak irtengo diren esperantza daukagu. Pena izugarria litzateke txaranga desagertzea.



# Santanak 04
# Egitaraua

**UZTAILAK 18, igandea**
**11:00** Kalejira Mendaroko txistularien eskutik
**12:00** Pilotalekuan meza
**12:30** Dantza jaialdia Mendaroko trikitilariekin
**14:00** Bazkaria Aizpe Elkartean

**UZTAILAK 23, ostirala**
**18:30** Gazte Asanbladak antolaturiko Futbito Txapelketaren finala
**19:30** Txupinazoa udaletxetik eta buruhandi eta erraldoien kalejira
**20:00** Salbea eta Santanari herriko zapla jartzea Garagartzako elizan
**Ondoren**, Eleiz abesbatzak "Festara" abestuko du
**23:30** Dantzaldia "Lisker" taldearekin
**1:00** Mozorro Lejiaketa
**Ondoren**, "Lisker" taldearen dantzaldia

**UZTAILAK 24, larunbata**
**10:00** Kalejira Mendaroko txistularien eskutik
**11:00** PHaur danborrada
**Ondoren**, trikitilarien kalejira
**14:30** Bazkari herrikoia Azpilgoetan
**Ondoren**, animazio saioa
**17:00** Zirkoa "Detraka" taldearekin. Pilotalekuan
**19:00** Sokamuturra txikia
**20:00** Kale animazioa "Txatunga Benbe"rekin
**23:00** Su jaialdia
**23:15** Dantzaldia "Haitzama" taldearekin
**1:00** Playback lehiaketa
**Ondoren**, diskoteka goizaldera arte

**UZTAILAK 25, domekia**
**9:00** Sokamuturra Garagartzan
**10:00** Diana Mendaroko txistulariekin
Musika bandaren kalejira, buruhandiekin
**12:00** Meza Garagartzan
**12:30** Kontzertua eta dantzaldia Herriko Enparantzan
**17:00** Pilota jaialdia
**20:00** "Trikizio" taldearen dantzaldia
**22:30** Nagusien danborrada
**00:00** "Trikizio" taldearen dantzaldia

**UZTAILAK 26, larunbata**
**10:30** Prozesioa Garagartzatik Mendaroko txistulariekin
**11:00** Meza Santa Anako ermitan
Erromeria bertsolari eta trikitilariekin
**14:30** Bertso bazkaria
**18:30** Herri kirol jaialdia pilotalekuan
**20:00** "Bizi Poza" txarangaren kalejira.

# Erretratu zaharra

Hilabete honetako erretratu zaharra **Txaro Eizagirre**k laga digu. Duela 34 urte inguruko erretratua da, gutxi gora behera, 1970. urtekoa. Mendaroko jaietan ateratako argazkia da, Garagartza auzoko Txikitxo tabernan, Kilimon erreka ondoko terrazan, hain zuzen ere. Argazkian ikusten dugun koadrila hau taberna honetan elkartzen zen beti, eta oso giro onean pasatzen zituzten herriko festak. Tamalez, ezin izan dugu argazkian ageri direnen izenik ezagutu, baina ziur batek baino gehiagok bere burua ezagutuko duela.
***Ondo pasa Santana jaietan!***









# informazioa

## Farmazia - okindegia

### UZTAILA

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 16 | Zabaleta | Zabaleta |
| 17 | Bidasolo | Bidasolo |
| 18 | Bidasolo | Bidasolo |
| 19 | Fernandez | Fernandez |
| 20 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 21 | Fernandez | Fernandez |
| 22 | Bidasolo | Bidasolo |
| 23 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 24 | Yudego | Fernandez |
| 25 | Fernandez | Fernandez |
| 26 | Yudego | Yudego |
| 27 | Fernandez | Fernandez |
| 28 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 29 | Fernandez | Fernandez |
| 30 | Bidasolo | Bidasolo |
| 31 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

### ABUZTUA

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 1 | Bidasolo | Bidasolo |
| 2 | Zabaleta | Zabaleta |
| 3 | Bidasolo | Bidasolo |
| 4 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 5 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 6 | Zabaleta | Zabaleta |
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 9 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 10 | Zabaleta | Zabaleta |
| 11 | Bidasolo | Bidasolo |
| 12 | Zabaleta | Zabaleta |
| 13 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 14 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 15 | Zabaleta | Zabaleta |
| 16 | Bidasolo | Bidasolo |
| 17 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 18 | Ibañez | Ibañez |
| 19 | Bidasolo | Bidasolo |
| 20 | Ibañez | Ibañez |
| 21 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 23 | Ibañez | Ibañez |
| 24 | Bidasolo | Bidasolo |
| 25 | Zabaleta | Zabaleta |
| 26 | Ibañez | Ibañez |
| 27 | Bidasolo | Bidasolo |
| 28 | Bidasolo | Ibañez |
| 29 | Ibañez | Ibañez |
| 30 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 31 | Ibañez | Ibañez |

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**UZTAILA**
18 igandea Eizagirre
25 igandea Fotero
31 larunbata Ibarrenea

**ABUZTUA**
1 igandea Fotero
8 igandea Ibarrenea
15 igandea Fotero
22 igandea Idarraga
24 martitzena Dª Merc.
29 igandea Eizagirre

### ELGOIBAR

SIGMA — ARRIAGA

| SIGMA - ARRIAGA | | ARRIAGA - SIGMA | |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA
Anbulatorioa ....943 03 26 10
Planning-a....943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak....943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) ....943 46 46 22
Gurutze Gorria ....943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea....943 03 28 00
Odol Emaileak....943 74 39 36

### GARRAIOAK
Eusko Trenbideak....943 74 04 42
PESA (Eibar) ....902 10 12 10
Taxi geltokia ....943 74 08 98

### UDALA
Euskara Zerbitzua....943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua....943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ....943 74 21 58
Mendaroko Udala....943 75 61 00
Ongizate zerbitzua....943 74 10 08
Udaletxea ....943 74 10 50
Udaltzaingoa ....943 74 13 94

### BESTELAKOAK
Elgoibarko Izarra....943 74 16 26
Kiroldegia....943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ....943 74 30 88
Liburutegia....943 74 35 25
Musika Eskola....943 74 21 45
Mintxeta ....943 74 43 15
Parrokia ....943 74 08 42
Postetxea ....943 74 15 47
Gaztetxea ....943 74 35 72
Gazte Informazioa....943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK
San Lazaro Egoitza ....943 74 02 96
Zaharren Biltokia....943 74 05 26
Eguneko Zentroa....943 74 45 65

### IKASTETXEAK
Haur Eskola....943 74 21 41
HHI (EPA) ....943 74 08 80
Herri Eskola ....943 74 08 79
I.M.H....943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ....943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ....943 74 80 19
Ikastola ....943 74 44 41
Pilar Ikastetxea....943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK
BARREN....943 74 41 12
El Diario Vasco ....943 74 40 73
El Correo Español ....943 74 10 82
Zazpiki irratia ....943 74 34 74
Egunkaria....943 30 02 28
Gara ....943 31 69 99

# Malta eta Hungariako taldeak izango dira Nazioarteko XVIII. Folklore Jaialdian uztailaren 23an

## Haritz EDTk kostaldeko dantzak eta jotak eskainiko ditu

Haritz Euskal Dantzari Taldeak urtero antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 23an, barixakuan, ospatuko da Olaizaga kiroldegian. Iaz Kenya eta Txetxenia moduko herrialde urrunetako folklore erakustaldiaz gozatzeko aukera izan bagenuen, aurten Europa zaharreko bi kulturen ekarpena izango da ikusgai oholtza gainean, kasualitatez Europar batasunean sartu berri diren Malta eta Hungariako folklore taldeenak, hain zuzen ere. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da. Sarrerak Txankakua Merkatarien Elkarteko dendetan eros daitezke. Prezioa 3 eurokoa izango da jubilatuentzat, 14 urtetik beherakoentzat, eta gazte txartela dutenentzat. Gainontzekoek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestalde, aurreko urteetan legez, Txankakuako dendetan sarrerak erosten dituztenen artean lau sari zozketatuko ditu Txankakua Dendarien Elkarteak. Sari bakoitza 60 eurokoa izango da, eta irabazleek Txankakuako dendetan erosketak egin ahal izango dituzte diru horrekin.







*Goian Haritz EDT.*
*Behean eta ezkerrean Maltako taldea.*
*Eskuinean, hungariarrak.*



**Paul Curmi Dancers (Malta)**

Mediterraneo itsasoan, Siciliaren hegoaldean kokaturik dago Maltako uhartea. 60ko hamarkadan bertako turismoak izandako hazkundearen eraginez, uharteko Turismo Sailak Maltako ohiturazko folklor-dantza ikertzeko agindu zion Curmi jaunari. Paul Curmik proposamena onartu zuen eta hainbat ikerketa egin ostean, nekazaritzaren eta aristokrazioaren inguruko makina bat dantza lantzen hasi zen. Bere ikuskizunen ardatza arrantzaleen koru xumeak, herri giroko jaiak, uzta ospakizunak eta ezkontza jaiak ziren. Curmi jaunak sorturiko tradizioak ez du etenik izan ondorengo belaunaldietan eta gaur makina bat ikuskizun egiten dira. Jantziak arretaz diseinatu dira, Maltako museotik eta Liburutegi Nazionaletik jasotako antzinako irudietan oinarritutako ikerketak egin ostean.

**Nyirseg Folklore-Dantzako Taldea (Hungaria)**

1974. urteaz geroztik ari da lanean talde hau Hungariako Nyiregyházan hirian. Bertako Udala izan da taldearen babesle nagusia. Taldearen dantza errepertorioak Hungariako arte folklorikoaren egiazko ikuspegiaren berri ematen du. Folklore-kultura aberats hori erakusteko asmoz, arreta berezia ematen diote herriko dantzak jatorrizko jantziekin taularatzeari. Konpainiak, sarritan, Hungariako eta atzerriko hainbat jaialditan hartzen du parte eta makina bat sari irabazi ditu.

**Kostaldeko dantzak eta jotak**

Haritz Euskal Dantzari Taldeari dagokionez, Kostaldeko Dantzak eskainiko ditu bere emanaldiaren lehen zatian. Debako San Roke eguneko ezpata-dantzarekin hasiko da saioa. Ondoren, Ondarroako "Saliña-saliña izeneko jorrai-dantza eta Lekeitioko "Kaixarranka" dantzatuko dituzte eta baita Lapurdiko kostaldeko arrain saltzaileen jarduna gogorarazten duen "Kaskarots" izeneko dantzak ere.

Bigarren zatian dantza soltearen jira-biran ibiliko da saioa. Dantzatzeko moduak adina izen ezagutzen zaizkio: jota, fandangoa, trikitixa, orripekoa, etab. Haritz Dantza Taldeak esandakoaren arabera, "3/8 erritmoan jotzen diren doinuak dira, eta askotan, 2/4 erritmoko beste bat jotzen da segidan: arin-arina edo porrusalda".

# **Softlan**-en azkena ezagutzen al duzu?

**www.esoftlan.com**




- 13.000 produktuen datuak on-line kontsultatu
- Zuzenean erosi prezio merkeagoak lortuz
- Zure fakturak eta bidalketak berrikusi
- Zure kontuko informazio guztia kontsultatu

## **Honetaz aparte...**

Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05 • Faxa: 943 74 82 28
E-posta: info@softlan.biz
Web orria: http://www.softlan.biz

Softlan
analisia & programazioa

## Miguel Angel Martinezek irabazi zuen Arrantza Txapelketa

### 18 lagunek parte hartu zuten Deban ospatu zen txapelketan

Migel Angel Martinezek irabazi zuen La Union Ehiza eta Arrantzu Elkarteak antolatzen duen Arrantza Txapelketa.

Debako Alamedan ospatu zen txapelketa joan zen uztailaren 11n, eta 18 elgoibartarrek parte hartu zuten bertan. Antolatzaileek parte hartzaileen arteko giro ona izan zela azpimarragarriena aipatu digute eta sarituei dagokienez 1.350 gramo arrantzatu ostean jantzi zuen txapela Miguel Angel Martinezek. Enrique Aizpuru sailkatu zen bigarren postuan 1.057 gramorekin eta Jose Ramon Idiakez sailkatu zen hirugarren postuan. Piezarik handiena Enrique Aizpuruk lortu zuen.



*Parte hartzaileak Debako Alamedan.*

Beterano eta gazteei dagokienez, Francisco Salegi eta Joseba Eliak eraman zituzten sariak, hurrenez hurren. Antolakuntzak Lig armeria, Evia eta Aguas de Alzolaren laguntza eskertu nahi du, Debako La Lubina elkarteko Jose Azpiazuk eskainitako laguntza ere ahaztu gabe.

Aldi berean txapelketan parte hartu duten guztiei datorren urtean ere etortzeko gonbidapena luzatu nahi diete .

## Uztailaren 25ean, Santiago Egunean, jokatuko dira Sigmako Txapelketako finalak



Sigmako Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da. Joan zen eguazten eta eguenean jokatu ziren finalerdietako partidak Sigmako frontoian eta jadanik erabakita daude Santiago Egunean, uztailaren 25ean, finalak jokatuko dituzten pilotarien izenak. Erredakzioa itxi aurretik lortu ditugun emaitzak dira honakoak.

Infantil mailan Asier Lizarraldek jokatuko du finala 18 eta 12 hartu baitzuen mendean finalaurreko partidan Jon Zubizarreta. Haritz Arribillaga eta Gaizka Unamunzagaren arteko norgehiagokako irabazlea izango da Asierren aurkaria.

Bigarren mailako txapelketari dagokionez, Osorok eta Aitorrek osatutako bikoteak jokatuko du finala. Hauek, Karral-Lander eta Aitor/Osoro bikoteen arteko partidako irabazlearen aurka jokatuko dute. Azkenik lehen mailako txapelketan Berazak eta Ansolak lortu dute finalerako txartela. Karmel/Altzibar eta Basueta/Idoeta bikoteen arteko partiduan erabakiko da finala jokatuko duen bigarren bikotea nor den.

## San Bartolomeetako VI. Harrijasotze Txapelketan izena emateko epea abuztuaren 9an amaituko da

Baserritarren Egunean, abuztuaren 28an, ospatuko da San Bartolometako VI. Harrijasotze Txapelketa Plaza Handian (euria egingo balu kiroldegian). Harrijasotzaileek hiru lan burutu beharko dituzte nahitaez, beste hainbeste harrirekin: 100 kiloko zilindro zaharra (3 minutu), 100 kiloko kubikoa (3 minutu) eta 100 kiloko bola (3 minutu). Hiru probak baturik, harria bizkarrera aldi gehienetan jasotzen duen parte hartzailea izango da irabazlea. Txapeldunak 760 euro eta garaikurra jasoko ditu, 600 euro bigarren sailkatuak eta 520 euro hirugarren sailkatuak. Laugarren, bosgarren eta seigarren sailkatuek ere jasoko dute diru saria. Txapelketan izena emateko epea abuztuaren 9an amaituko da. Elgoibarko Kultur Etxean eman daiteke izena edo honako telefonora deituta: 943 74 21 58.



## Ainhoa Lendinez eta Amaia Revert Debabarrena Txirrindulari Taldean arituko dira

### Emakumez osatutako Gipuzkoako Txirrindulari talde bakarra da



Debabarrena Eibarko Txirrindulari Taldeak nesken taldea atera berri du eta Ainhoa Lendinez eta Amaia Revert elgoibartarrak fitxatu ditu. Elgoibartarrak Elite mailan arituko dira eta Maria Gallastegi eibartarra eta Zumarragako Nekane Lasa izango dituzte taldekide. Emakumez osatutako historiako lehen txirrindulari talde eibartarra izango da eta une honetan Gipuzkoan dagoen bakarra. Nekane Lasa da lauretan ezagunena oraingoz, bera baita egungo mendi bizikletako "Open Euskadiko" txapelduna. Zumarragarrak hamabi lasterketetatik bederatzi irabazi ditu. Elgoibartarrek datorren urtean hasiko dute denboraldia. Ainhoak txirrindularitza eta duatloiak uztartzeko asmoa du eta Amaiak, berriz, txirrindularitza eta triatloia. Zorterik onena opa diegu hasi berri duten abenturan eta ea aurki beraien garaipenen berri emateko aukerarik daukagun.

## Jose Gurrutxaga Espainiako txapeldun 100 eta 200 metrotan



Jose Gurrutxaga atleta beteranoak titulu zerrenda luzatzen jarraitzen du. 83 urte betetzear dagoen arren, Espainiako Atletismo Txapelketan parte hartu zuen Sevillan. Bertan, 100 eta 200 metrotako lasterketetan antxintxika egin zuen. Ez zuen areriorik izan, ez baitago bere adineko beste korrikalaririk, baina erlojuaren aurka borrokatu behar izan zuen atleta saiatuak. Federazioak gutxieneko denborak jartzen ditu domina eta titulua eskuratu ahal izateko, baina Gurrutxagak hauek ere gainditzea lortu zuen. 100 metrotan 17,93 izan zen elgoibartarraren marka (20,16 zen federazioak ezarritako denbora). 200 metrotako lasterketan, berriz, 38,61 izan zen Joseren denbora (44,00 zen federazioak ezarritako denbora). Aurrez Euskadiko Txapelketan ere parte hartu zuen eta hemen ere 100 (18,55) eta 200 (39,10) metrotako tituluak eskuratu zituen. Gazte eta ez horren gazteentzako exenplu bikaina dira elgoibartarrak erakusten dituen kemena eta konstantzia. Askok nahiko lukete beretzako Joxek duen sasoia. Jarrai dezala urte luzez markak hausten.

## Hasi dira Mintxetako futbol zelaiko belar artifiziala aldatzeko lanak

Uztailaren 12an hasi ziren Mintxetako futbol zelaiko belar artifiziala aldatzeko lanak. Kamioiak eta eskabadorak hasi dira jadanik joko zelai artifiziala bere lekutik kentzen. Belar gehiena zabortegi batera eramango dute, baina zati batzuk Mintxeta Atletismo taldearentzat gordeko dira, Juan Mugerza Memorialean erabiltzeko behar baitituzte. Zelai berria abuztu bukaerarako jarrita egongo dela espero dute Udal Kirol Patronatuko arduradunek, baina eguraldiak zeresan handia izango ei du, hirugarren belaunaldiko zelai artifizial berria behar bezala itsasteko zeharo lehorra egotea komeni baita. Poligraf Iberika eta Amsa enpresa elkargoak lortu zuen lanak aurrera eramateko ardura zozketa bidez, eta 664.500 euroko aurrekontua dute.

## EMAITZAK

### Esku pilota

**Sigmako Txapelketa**

Asier Lizarralde **18** – Jon Zubizarreta **15 (Inf.)**

Osoro/Aitor **22** – Xabier/Ibarluzea **18 (2. maila)**

Arribillaga/Unai **18** – Beraza/Ansola **22 (1. maila)**

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Abadiñoko enpresak **gerentea** behar du. **Erref. 162004005568**

Gipuzkoako enpresak **begiraleak** behar ditu. **Erref. 162004005680**

Eibarko enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 162004005821**

Oñatiko enpresak **elektrikaria** behar du. **Erref. 162004005791**

Gipuzkoako enpresak etxez etxeko laguntzailea behar du. **Erref. 162004005787**

Gipuzkoako enpresak **pintorea** behar du. **Erref. 162004005770**

Gipuzkoako enpresak **arkitektoa** behar du. **Erref. 162004005570**

bilboko enpresak diseinatzaile grafikoa behar du. **Erref. 162004005425**

Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004005727**

Elgoibarko enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 162004005190**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

♦ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **610 69 95 32**

♦ Emakumea etxeak, tabernak edota elkarteak garbitzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

♦ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **662 078 352**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, astebururak barne. ☎ **626 91 49 04**

♦ Emakumea adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernetan ontziak garbitzeko prest. ☎ **660 91 94 23**

♦ Emakumea garbiketa lanetarako prest. ☎ **943 74 22 01/ 652 71 59 08 (Araceli)**

♦ Emakumea umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **943 74 35 05**

♦ Bi neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **660 69 53 03 (Marta)**

♦ Bi mutil edozein lan egiteko prest. ☎ **665 74 12 80**

♦ Mutila eraikuntza lanetarako prest. ☎ **662 07 83 52**

♦ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943 17 28 96**

♦ Uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 17 88 (20:30etik aurrera)**

### ESKAINTZA

♦ Kamarera gaztea behar da esperientziarekin jaietarako. ☎ **943 74 37 71**

♦ Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. ☎ **680 669 137**

♦ Kamareroa behar da astean zehar lan egiteko. ☎ **652 77 82 10 /652 77 82 60**

♦ Mapfrek, Deba Behe bailaran duen sarea osatzeko komertzialak behar ditu.Formazioa eta babesa eskeintzen dizuegu lanbide hontan hasteko. Bidali zure kurrikuluma eta telefonoa **MAPFREra, estazio kalea 11-13, 20600 EIBAR.**

## Etxebizitzak

♦ Atiko bat saldu edo alokatzen da Altzolan. ☎ **943 74 13 39/ 943 19 17 14**

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Merke. ☎ **628 699 913 (Maria)**

♦ Pisua alokatuko nuke. ☎ **636 16 32 13**

♦ Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, bisitzera sartzeko moduan. Sukaldea, hiru logela, jangela, komuna, trasteroa eta ganbara. ☎ **943 74 02 68/699 17 98 72**

♦ Pisua salgai erdialdean. 3 logela, sukalde jangela, egongela. Berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ineresgarria. ☎ **661 42 60 77**

♦ Pisua salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukaldea, egongela komuna.2 ganbara. Altzariekin. ☎ **665 70 30 24**

♦ Pisua salgai erdialdean. 3 logela, sukalde jangela, egongela. Berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ineresgarria. ☎ **661 42 60 77**

♦ 4 bungalow alokatzn dira Cadizen. Chiclana hondartzatik 3km.ra. 60 euro eguneko. ☎ **620 26 80 24**

♦ Benidorm. Apartamentua aokatzen da. ☎ **943 74 06 28**

♦ Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **615 73 21 12**

♦ Bi emakumek pisua hartuko lukete alokairuan Elgoibarren. ☎ **660 792 628**

♦ Apartamentua alokatzen da Alcocebérren. Hondartzako lehenengo ilaran. ☎ **630 570 563**

♦ Etxea osatzeko pertsona behar da. ☎ **615 76 55 15**

♦ Logela bat alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**

♦ Pisua salgai Arregitorren, 3 logela, egongela, 2 komun eta ganbara. Berritua. Eguzkitsua. 92m$^2$.☎ **679 830 438**

## Bestelakoak

♦ Hamster bat oparitzen da. ☎ **943 74 33 59 (Iosu)**

♦ Bi bizikleta oparitzen dira, mendikoa eta paseokoa. ☎ **943 74 18 59**

## Lokalak

♦ Gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. Ez dadila oso garestia izan. ☎ **660 349 723**

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Garajeak

♦ Garaje irekia alokatzen da San Roken. ☎ **653 73 94 67**

## Partikularrak

♦ Kontabilitate eta finantza partikularrak jasoko nituzke udan. ☎ **650 624 188**

♦ Biologian lizentziatuak irakasgai denen partikularrak ematen ditu, 2. ESOra arte. ☎ **637 12 30 59**

♦ Euskara eta ingeles klase partikularrak ematen dira uztailean. ☎ **943 74 10 91 (Eider)**

## Salerosketak

♦ Opel Corsa autoa salgai. SS-AH. Egoera onean. 1.350 euro. ☎ **943 74 21 84**

♦ Bikientzako kunak, Prenatal markako kotxe sila, eta autorako aulkiak salgai. Koltxoiak, edredoiak, eta zakuak oparí. ☎ **635 75 42 90**

♦ Ehiza txakurra, 5 urteko Brako alemana salgai. Galeperretan oso ona, oilagorretan ere ibilia. ☎ **686 48 10 68**

♦ Mendiko Grisley bizikleta salgai. Mendirako eta errepiderako gurpilak, eta bi kasko. ☎ **609 04 08 72 (Imanol)**

♦ Bi sofa salgai. 3 eta 2 lagunentzakoak. Horiak. Egoera oso onean. ☎ **665 73 46 37**

♦ Opel Astra GT 2.0i salgai. SS-AM ☎ **635 75 50 90**

♦ Egongelarako altzaria salgai. Urtebete dauka. Ekonomikoa, negoziagarria. ☎ **636 355 631**

♦ Bikientzako kotxesila salgai. Inglesina marka. ☎ **636 129 543**

♦ Zaindu ezin dugunez, chow-chow txakur emea salgai. Urte eta erdi, pedigree, txip eta bakunatua. Prezioa erabakitzeko. ☎ **656 79 49 69 (Mari)**

♦ JVC bideo kamara digitala salgai. Estreinatu gabe. ☎ **630 527 940**

# Agurrak

♦ Zorionak **Lore**ri, zure urtebetetzean. Lagunen partez.



♦ Zorionak **Iraitz**, bihar, hilak 17, 8 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, anaia Enekoren partez.



♦ Zorionak **Aritz**, gure etxeko totolo txikiari, atzo, hilak 15, urtebete egin zuelako. Etxekoen partez.



♦ Zorionak **Leire** uztailaren 20an 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, aita, ama eta Ibanen partez.



♦ Zorionak **Andrea**ri, hilaren 17an, 7 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien eta bereziki, lehengusuen partez. Ondo-ondo pasa eguna.



♦ Zorionak **Goizeder**, abuztuaren 4an, 2 urte beteko dituzulako. Egun ederra pasa dezazula. Gurasoen, familiakoen eta ahizpa Eiderren partez.



♦ Zorionak **Jonathan Garcia**ri, hilaren 11n, 12 urte egin dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Jone**ri, gaur 8 urte egin dituelako. Etxekoen partez.



♦ Zorionak **Mikel**, gaur, hilak 16, 7 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Irati** eta **amama Arrate**ri uztailaren 27an eta 30ean, 4 eta 58 urte beteko dituzuelako. Familiakoen eta bereziki Iñigo, Pedro, Egoitz eta Arkaitzen partez.



♦ Zorionak **Iñaki** eta **Arrate!** Laster dator hilaren 24a. Ondo-ondo pasatu. Familiakoen partez. Beti elkarrekin!



♦ Zorionak **bikote**, azkenean iritsi da eguna. Pamelak prest ditugu. Muxu handi bat koadrilakoen partez.



♦ Zorionak **Aurori** eta **Andrea!** Familiakoen partez, segi horrela urte askoan.

gazte informazioa

***Elgoibarko Gazte Informazio Gunea***
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*
*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 9:00-13:00*

## BEKAK

**Lankidetza bekak**

Eusko Jaurlaritzak 2004/2005 ikasturteko lankidetza-beketarako deia egin du. Beka hauek, espediente akademiko ona dutela froga dezaketen ikasleei zuzenduta daude, unibertsitateko ikasketekin bateragarritasun-erregimenpean lankidetzan jardun nahi badute unibertsitateko ikastetxeetan. Beka bakoitzaren zenbatekoa: 2.460 euro. Informazio gehiagorako: www1.hezkuntza.ej-gv.net . Epea: irailak 30

**Beka orokorrak**

Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka orokorrak prestatu ditu. Beka hauek baliabide ekonomiko eskasak eta ikasketa-emaitza onuragarriak dituzten eta 2004/2005 ikasturtean EAEko edo Estatuko edozein ikastetxetan ikastera doazen goi-mailako irakaskuntzako ikasleentzat dira. Informazio gehiagorako: www.hezkuntza.ej-gv.net . Epea: urriak 15

## JARDUERAK

**Auzolandegiak**

Eusko Jaurlaritzak antolatutako 2004ko gazte auzolandegietara joateko, oraindik aukera badago. Auzolandegi hauek gai ezberdinen ingurukoak izango dira eta Euskal Herrian, Estatuan eta atzerrian burutuko dira. Bertan 18 urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute. Interesatuek hurrengo telefono zenbakiarekin harremanetan jarri beharko dute: 943 022 964.

## LANA

**Bilalan**

Bilalan lana eskaini eta lortzeko sortu berri den gune euskalduna da. Lana euskaraz egin nahi baduzu, edo langile euskaldunak behar badituzu, hemen duzu aukera. Webgune honetan batzen dira lana bilatzen ari direnak eta langileak bilatzen ari direnak ere bai. Curriculun Vitaeak, elkarrizketak, foroa, web loturak. Euskaldunak bilatzen dituzten enpresarientzako eta langabetu euskaldunentzako gunea. Informazio zahatzagoa: www.sustatu.com/1089714883

**Liburutegiko laguntzailea Bergaran**

Bergarako Udalerako liburutegiko laguntzaile baten txanda-kontraturako deialdia. Baldintzak: Batxilergo, LH2 edo titulu baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: uztailak 21

**Udaltzaina Eskoriatzan**

Eskoriatzako Udalean hutsik dagoen Udaltzain plaza bat betetzeko lehiaketa-oposaketa. Baldintzak: 18 urte beteta izatea eta 32 urte bete gabe izatea, baldintza fisikoak, Eskola Graduatuaren titulua, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: uztailak 30

**Liburutegiko laguntzailea Eskoriatzan**

Eskoriatzako Udalean hutsik dagoen liburutegi laguntzaile plaza bat betetzeko lehiaketa-oposaketa. Baldintzak: Bigarren mailako Lanbide Heziketa, Goi Batxilergoa edo baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: uztailak 30

# agenda

2004-VII-16

## 18 DOMEKIA
19:00 **DANTZALDIA GELATXO ORKESTRAREKIN**
Plaza Handian

## 23 BARIXAKUA
22:30 **ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XVIII. FOLKLORE JAIALDIA**
Taldeak: Hungriako Nyirseg Dantza Talde Folklorikoa, Maltako Paul Curmi Dancers eta Haritz Euskal Dantzari Taldea
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Haritz EDT

## 25 DOMEKIA
**SARGOATEKO ERROMERIA**
11:00 **MEZA**
12:00 **SALDA ETA TXORIZOA**
12:30 **BERTSOLARIAK ETA TRIKITILARIAK**
14:00 **ERROMERIAREN AMAIERA**
Antolatzaileak: Debemen, Morkaiko M.E. Sallobenteko Jai Batzordea, Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala
19:00 **DANTZALDIA GELATXO ORKESTRAREKIN**
Plaza Handian

## Sallobenteko JAIAK

**ABUZTUAK 7, zapatua**
18:00 Kanpai jotze eta zuziriak
Ondoren, errosarioa eta meza
19:30 Makailu jan herrikoia auzoko aiton-amonentzat. Afal ostean, bertsolariak: Iranzu eta Mendiluze
23:30 Erromeria "Gau-alai" taldearekin

**ABUZTUAK 8, domekia**
11:00 Meza
Ondoren, pilota partidua
14:30 Lagun arteko bazkaria
18:00 Herri kirolak
Harrijasotzaileak: Arkaitz Egaña eta Izeta.
Aizkolariak: Mugerza eta Arkaitz Iriarte
Ondoren, Gorixoren zezenak
22:00 Bolo saioak
23:00 Erromeria Gardokirekin

**ABUZTUAK 9, astelehena**
22:30 Erromeria Larreategi soinujolearekin
23:00 Bolo saioak

**ABUZTUAK 10, martitzena**
**SAN LORENZO EGUNA**
11:00 Meza Nagusia
Ondoren, aurreskua Haritz Euskal Dantzari Taldearekin
12:30 Pilota partiduak
18:00 Haurrentzako jolasak eta Gorriti eta bere abereak
Ondoren, Txokolatada denentzat
20:00 Emakumeentzako bolo saioa
22:30 Bolo saioak
23:00 Erromeria Baltzola anaiekin
24:00 Bolo Txapelketa

## San Rokeko JAIAK

**ABUZTUAK 15, domekia**
**BEZPERA**
17:00 Kanpai jotzea eta txupinazoa.
20:00 Errosario Santua.
20:30 Bertso afaria Lujanbio eta Lizaso bertsolariekin. Tarteka Larrañaga eta Epelderen saioak

**ABUZTUAK 16, astelehena**
**SAN ROKE EGUNA**
8:00 Txapligoak eta txupinazoa.
11:00 Meza Nagusia.
Jarraian: Haritz Euskal Dantzari Taldearen dantza saioa.
Berehala, Zaldi lasterketa bertako zelaietan
17:00 Umeen jolasak ustekabearekin
Ondoren, Zezentxoak eta zalditxoak
23:00 Erromeria "Laja eta Eguren"ekin
1:00 Bolo saioak

**ABUZTUAK 17, martitzena**
**SAN ROKE TXIKI EGUNA**
8:00 Txapliguak eta txupinazoa
11:00 Bailarako hildakoen aldeko meza
12:30 Sokatira lehiaketa, ezkondu eta ezkongaien artean
Ondoren, ahari eta oilar borrokak
14:00 Anaiarteko bazkaria Gardokik alaituta
17:00 Herri kirol saioa.
Aizkolariak: Mindegia eta Senosiain
Harrijasotzaileak: Urrutia eta Barinaga
Jarraian, zezentxoak eta zponiak
22:30 Erromeria gardoki aita-alabekin
Ondoren, bolo saioak
1:00 Orgatilaren zozketa

## ZINEA



### "A contrareloj""
**Zuzendaria: Carl Franklin.**
**Antzezleak: Denzel Washington, Eva Mendes, Sasaa Lathan.**
Floridako herri txiki batetako polizia buruak (Denzel Washington) atzemandako droga trafikatzaile batzuei konfiskatutako dirua hartuko du maite duen emakumeak behar duen operazioa egin ahal dezan. Zituen amets guztiak zapuztuko dira, emakumea sute batean erre eta dirua desagertzen denean. Eta are okerragoa dena, froga guztiek bera izan dela erruduna erakusten dute. Oker dagoena oraindik gehiago oker daiteke, ordea, eta kasua ikertzearen ardura bere emazte ohiak izango du.

## ERROMERIAK

**Sargoateko Erromeria**

Elgoibarko Izarra, Debemen, Morkaiko, Sallobenteko Jai Batzordea eta Udalak antolatuta, Sargoateko Erromeria ospatuko da datorren uztailaren 25ean. Goizeko 11:00etan meza izango da. Ondoren salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Eguerdiko 12:30ean trikitilari eta bertsolari saioa, eta 14:00etan erromeriari amaiera emango zaio.

## LEHIAKETAK

**Kokoeren komiki lehiaketa**

Kokoe Komiki Elkarteak bi urtean behin antolatzen zuen Komiki Lehiaketa orain arte, baina hemendik aurrera urtero antolatzea erabaki dute. Dagoeneko ikusgai daude oinarriak beraien web-orrialdean: www.kokoe.org Badakizue, hortaz, interesaturik bazaudete bertatik pasa zaitezkete. Lan originalak 2004ko urriko 11ren, eguerdiko 14:00ak arte onartuko dira gehienez. Elgoibarko Kultura Zerbitzuan; Nafarroa plaza, 3 entrega daitezke. Urriaren 22an inauguratuko da lehiaketan parte hartu duten lanekin osatutako komiki erakusketa eta sari banaketa ere bertan egingo da. Urriaren 31ra arte izango dira ikusgai lanak Kultur Etxean.

## DANTZA

**Haritz EDT Pas de Basque ikuskizunean**

Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeak Pas de Basque ikuskizunean parte hartuko du datorren abuztuaren 2an, astelehenean. Eibarko Kezka eta Añorgako Arkaitz Dantza taldeekin batera arituko da. Juan Antonio Urbeltz koreografo eta Argia dantza taldeko zuzendariaren azken lana da Pas de Basque. Ikuskizuna Gasteizko Plaza Barrian izango da gaueko 22:20etik aurrera.

## zine

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"El Gato"**
16, barixakua: 22:15

**"A Contrareloj"**
17, zapatua: 22:15

**"Scooby Doo 2"**
24, zapatua: 22:15

**"Amanecer de los muertos"**
25, domekia: 22:15

**EIBAR, Unzaga**

**"Spiderman 2"**
16, barixakua: 19:30-22:15
17, zapatua: 17:00-19:30-22:30
18, domekia: 17:00-19:30-22:30
19, astelehena: 19:30-22:15
20, martitzena: 19:30-22:15
21, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**

**"Shrek 2"**
16, barixakua: 19:30-22:15
17, zapatua: 17:00-19:30-22:30
18, domekia: 17:00-19:30-22:30
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ZINEA



### "El Gato""

**Zuzendaria: Bo Welch.**

**Antzezleak: Mike Myers, Alec Baldwin, Kelly Preston.**

"El Grinch" filmaren arrakasta ikusirik, Theodor S. Geisel (Dr. Seuss gisa ezagunagoa) idazlearen beste liburu bat pantailaratzea erabaki zuen Brian Grazer Hollywoodeko ekoizleak. 1957an argitaratu zen "The Cat in the hat" elaberrian oinarrituta dago lan hau eta Estatu Batuetan historiako 10 liburuirik salduenetakoa da haurren sailean. Argumentua sinplea da, Sally eta Conrad aspertuta daude etxean eta katu baten bisita jasoko dute. Honek dibertitzea zeinen ona izan daitekeen erakutsiko die, betiere arduraz jokatuz gero.

2004-VII-16




Aste honetako erretratu zaharra **Juanito Gorostiza**k ekarri digu. 1974. urteko argazkia da. Gure Bide Elkarteak San Bartolome jaietan antolatzen duen Etxaniz Memorialean aterata dago. Urte hartako irabazlea ageri da bertan; begira garai hartan nolako podium-a zegoen!

Egun hauetan Frantziako Tourra pil-pilean dagoenez, egokia iruditu zaigu txirrindularitzari buruzko argazki bat publikatzea.

Argazkian jende asko ageri den arren, aurreko ilaran ageri direnen izena gogoraraziko dizuegu:

Ezkerretik eskumara: **Jose Luis Intxausti** (gaur egun C.D. Elgoibarko presidentea), **Jaime Arrese (✝)** ( Elgoibarko alkate ohia), **Manuel Arguijo** irabazlea, **Mila Osoro** (irabazleari loreak eman zizkiona) eta **Ramon Maiztegi** (urte hartan Gure Bideko lehendakaria).



*ESKERTZA*

*2004ko uztailaren 11n, 74 urte zituela hil zen*
***JUANITA GABILONDO MUGUERZA**ren seme-alabak,*
*bilobak eta gainerako sendiak,*
*bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# SANTANA JAIXAK

# 04




## Uztailaren 23tik 26ra




Herri kirolak

Danborrada

Bertsolariak




Sokamuturra

Su artifizialak

Playback...




*Ondo pasa jaixak!*

MENDARO



# ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XVIII. FOLKLORE JAIALDIA



UZTAILAK 23
OSTIRALA
22:30ean



OLAIZAGA
KIROLDEGIAN



EUSKAL HERRIA - MALTA - HUNGARIA

Elgoibarko Udala
Musika eta Dantza
Udal Fundazioa

Gipuzkoako
Foru Aldundia

SAREA

Elgoibarko
Kirol Patronatua

TXANKAKUA

Txankakua
Merkatari Elkartea

Haritz
Euskal Dantzari Taldea